

BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA SAILA

6222

EBAZPENA, 2021eko abenduaren 1ekoa, Aniztasunerako eta Hezkuntza Inklusiorako zuzendariarena, zeinaren bidez unibertsitate-mailakoak ez diren ikastetxeetako guraso-elkarteen federazioentzako eta konfederazioentzako laguntzak ematen baitira.

Hezkuntzako sailburuaren 2021eko ekainaren 8ko Aginduak egindako deialdian ezarritakoari jarraituz, eta izapidetu diren espedienteak aztertu ondoren, hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Arlo edo lurralde-eremuak kontuan hartuz ebazpen honen I. eranskinean zehazten diren laguntzak ematea ikasleen guraso-elkarteen federazio eta konfederazioei, 2021. urtean egingo dituzten ekintzak finantzatzeko.

2. artikulua.– Laguntzen lehen ordainketa elkarte bakoitzari dagokion dirulaguntzaren % 75ekoa izango da. Ordainketa alde aurretik egingo da eta, betiere, dirulaguntza onartu ondoren, deialdiaren aginduko 15.1) artikuluan jasotzen den bezala. Gainerako % 25a ordaintzeko, nahitaezkoa izango da «Egindako gastuaren justifikazioa» inprimaki normalizatua behar bezala beteta aurkeztea, bai eta ordura arte izandako gastuen faktura eta ordainagiriak ere. Agiri horiek aurkezteko epea 2021eko abenduaren 23an amaituko da, egun hori barne.

AZKEN XEDAPENA

Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal diote interesdunek Hezkuntzako sailburuordeari, hilabeteko epean, ebazpena elektronikoki jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko abenduaren 1a.

Aniztasunerako eta Hezkuntza Inklusiorako zuzendaria,
LUCÍA TORREALDAY BERRUECO.

ERANSKINA

Konfederazioak

Lurraldea	Erakundearen izena	Guztira (euro)
Bizkaia	Confederación EHIGE Euskal Herriko Ikasleen Gurasoen Elkarte	70.000

Lurralde-eremuko federazioak

Lurraldea	Erakundearen izena	Guztira (euro)
Araba	Federación de AMPAS Denon Eskola	48.033,00
Gipuzkoa	Baikara Gipuzkoako Euskal Eskola Publikoko Ikasleen Gurasoen Federazioa	57.193,00
Bizkaia	Bige Gurasoen Elkarte-Federación de Padres y Madres de Alumnos	64.774,00

Beste federazioak

Lurraldea	Erakundearen izena	Guztira (euro)
Araba	Federación Alavesa de Asociaciones de Madres y Padres del Alumnado de Centros no Estatales Francisco de Vitoria – FAPACNE	11.988,00
Araba	Federación de Asociaciones de Madres y Padres de Alumnos EGIBIDE – EGIAMPA	5.002,00
Bizkaia	Federación Católica de Padres de Familia y Padres de Alumnos – FECAPP	28.200,00
Bizkaia	Bizkaiko Ikastoletako Guraso Elkarte Federazioa – BIGEF	15.730,00
Bizkaia	Federación Coordinadora de APAS de Colegios Públicos de Santurtzi-Gidari	5.043,00
Bizkaia	Federación de Asociaciones de Padres de Alumnos de Euskadi-FAPAE	6.780,00
Bizkaia	Federación AMPAS Bidelagun	10.679,00
Gipuzkoa	Gipuzkoako Ikastoletako Guraso Elkarte Federazioa – GIGEF	23.223,00
Gipuzkoa	Gipuzkoako Eskola Txikietako Guraso Elkarte Federazioa – GETGEK	3.355,00